



## Nazioarteko Workshop-a

# Euskal Ikasketak ikuspegi transdiziplinar batetik: elkarrizketa eta hausnarketa

2021eko abenduak 10 [modalitate birtuala]  
**REVA** (Red de Estudios Vascos en Argentina)

*Euskal ikasketak* jakintza-diziplina multzo zabala biltzen duen arlotzat hartzen dira. *Euskalduntasunarekin* lotura duten ikerketaren objektu/subjektu gisatzat ere hartzen da: espazioak, pertsonak, prozesuak, hitzak, kosmobisioak. Horren objektuak hizkuntzalaritza eta etnografia dira, baina baita hainbat diziplina ezberdin ere, hala nola historia, antropologia, literatura, genealogia, erlijioa, zuzenbidea, diaspora eta beste hainbat espezialitate akademiko. Hala ere, arlo hau maizegi agertu zaigu lur basati bezala. Alde batetik, jakintzat jotzen da diziplina akademikoa dela; arlo bat dela argudiatzen da, hain zuzen ere, ikerzaileek ekarpenak egiten dituztelako, ikasleei ikastaroak ematen zaizkielako eta katedrak eta ikerketa-zentroak daudelako. Bestalde, eskuzabaltasunez irekitzen da, eta mugarik gabe errepikatzen dela dirudi, dinamika multidiziplinarra baitu, eta horri eusten baitzaio bere iaera eta estilo topografikoa.

Workshop honetan, ikerketa-praxian bertan sortzen den galdera baten inguruan lan egin nahi dugu. Euskal ikasketek autodefinizio arazoak dituzte? Zergatik? Euskal gaiei buruzko zenbatezin alderdi izan dira ikerketa-objektu: migrazioa eta erbetea, diaspora, balioen eta nortasunaren transmisioa, kulturaren kontserbazioa eta iraunkortasuna. Baina *euskal ikasketen* arloa bera oso gutxitan izan da, berez, definiziorako objektua, eta ia inoiz ez, *per se*, hausnarketarako subjektua.

Workshop honen helburua, gaian interesa duten pertsonen topaketa sustatzea da, ikasle zein ikerzaile prestatuak izan. Asmoa, alderdi askotan berritzailea den bidea hartzea da: Euskal ikasketei buruzko elkarrizketa eta hausnarketa partekatua sortzea, ikuspuntu transdiziplinarra hartuz.

Zure ekarpenak bidaltzera gonbidatzen zaituztegu, printzipioz honako galdera hauei erantzunak bilatzeko asmoz: zer partekatzen dute diziplina diferenteko ikerzaileek euskal ikasketetan aritzen direnean?, hurbilketa-metodo komunak bereiz daitezke?, hari komunak daude edo kezka partekatutak besterik ez?, posible al da esparru kontzeptual partekatutak aurkitzea?, hala bada, euskal ikasketetan zer aukera irekiko lirateke egungo munduan?

### Lan-dinamika

Parte-hartzaile bakoitzak 10 eta 15 minutu artean (gehienez) izango ditu: (1) egungo bere ikerketa-proiektua labur-labur azaltzeko; eta (2) goiko gaiei buruz hitz egiteko eta gogoeta egiteko

### Kontaktua:

Aitor Anduaga a.anduaga[@]jikerbasque.org

Julieta Gaztañaga julieta.gaztanaga[@]conicet.gov.ar